



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

INGELES IRAKASLEEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZA LEHEN HEZKUNTZAN: KONPARAZIO LAN BAT

Egilea: Asier Fernandez Pablos

Zuzendaria: Julian Maia Larretxea

Leioan, 2014ko Ekainaren 12an

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Markoaren ezaugarri batzuk: ingelesaren papera <i>lingua franca</i> gisa eta Europako Unibertsitateen Erreforma (Bolognako prozesua).....	4
2.1 Ingelesaren papera <i>lingua franca</i> gisa.....	5
2.2 Europako Unibertsitateen Erreforma: Bolognako prozesua.....	8
3. Datuak biltzeko prozedura	9
4. Suediako <i>Stockholms Universitet</i> eta UPV-EHUko Bilboko Irakasle Eskolaren arteko konparazioa	10
4.1 Lehen Hezkuntzako Gradua egiteko plangintzen konparazioa	12
4.2 Lehen Hezkuntzako Ingeleseko irakasleen espezializazioa: Atzerriko Hizkuntzako Minorra VS <i>English For Primary School Teachers years 4-6</i>	14
4.2.1 Kurtsoetako ikasgaiak eta hauen kredituen kopurua	15
4.2.2 Egutegia/ordutegia eta lanak egiteko erak.....	19
4.2.3 Taldekatzeak.....	20
4.2.4 IKTen (Informazioa eta Komunikazio Teknologien) erabilera.....	21
4.2.5 Ebaluazioa	22
5. Emaitzak eta ondorioak.....	23
6. Bibliografia	25
7. Eranskinak.....	27
1. eranskina: <i>Stockholms Universiteteko English for Primary School Teachers, years 4-6</i> kurtsoaren egutegia.	27
2. eranskina: <i>Stockholms Universiteteko English for Primary School Teachers, years 4-6</i> kurtsoko <i>Language Education Department</i> eko ikasgaien ikasketa gida.....	30
3. eranskina: <i>English Literature and films for young readers</i> ikasgairako egin beharreko bakarkako lan nagusiak.	35
4. eranskina: <i>English Literature and films for young readers</i> ikasgaiko amaierako azterketa.	36

LEHEN HEZKUNTZAKO INGELES IRAKASLEEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZA: KONPARAZIO LAN BAT

Asier Fernandez Pablos

UPV/EHU

Lan honetan egungotasun handikoa den gai baten inguruan ariko gara, hau da, Lehen Hezkuntzako ingeles irakasleen oinarrizko prestakuntzari buruz. Zehatzago esateko, kasu honetan konparazio lan bat egin dugu Suediako *Stockholms Universitet*-en eta UPV-EHUko Bilboko Irakasleen Eskolaren artean. Horretarako, iturri idatzi batzuk bezala, egile honen esperientzia zehatza ere baliatu dugu. Laburpen gisa, esango genuke konparazio honetan hainbat berdintasun ageri direla baina baita desberdintasun esanguratsuak ere.

Eleaniztasuna, ingeles irakasleak, prestakuntza, lehen hezkuntza, konparazioa

En este trabajo se ha tratado un tema tan actual como es la formación recibida por los docentes de inglés. Para ello, se han utilizado tanto fuentes escritas como las experiencias del autor para llevar a cabo una comparación entre dos instituciones - *Stockholms Universitet* de Suecia y la Escuela de Magisterio de Bilbao perteneciente a la UPV-EHU-. A modo de resumen, cabe destacar que durante la comparación se podrán apreciar numerosas similitudes a la par que significativas diferencias.

Plurilingüismo, profesores de inglés, formación, educación primaria, comparación

In the following piece of work we are going to discuss such a current issue as the instruction English teachers are receiving. For that reason, we have taken into account some written sources as well as the experiences of the author of this project, in order to carry out a comparison between two institutions - *Stockholms Universitet* from Sweden and the UPV-EHU Teacher Training School in Bilbao-. As a summary, we can conclude that in the mentioned comparison many similarities as well as meaningful differences will be observed.

Plurilingualism, teachers of English, teacher training, primary school, comparison

1. Sarrera

Lan honen helburua Suediako *Stockholm Universitet* eta UPV-EHUko Bilboko Irakasleen Eskolan eskaintzen diren bi kurtsoren arteko konparazioa egitea da. Kurtso hauek Lehen Hezkuntzako ingeles irakasleak izan nahi dutenentzako bereziki zuzenduta daude; beraz, gure ikerketaren arreta esparru horretan bilduko dugu, bestelako datu orokorrak ager daitezkeen arren. Argi utzi nahi da konparazioan ez dagoela irabazle ez galtzailerik, lehiaketa bat egitea ez baita inondik inora lan honen helburua. Horren ordez, lortu nahi da bi instituzio hauen funtzionatzeko eretatik ahalik eta gehien ikastea, balizko hobekuntza-puntu edo bide posibleak identifikatuz.

Ikergai bezala zehazki bi instituzio hauek aukeratzeko arrazoia da lan honen egileak Lehen Hezkuntzako Graduaren zatirik handiena Bilboko Irakasle Eskolan eginda, aukera izan zuela laugarren mailan Atzerriko Hizkuntzako Minorra *Stockholms Universitet*en egiteko. Erasmus mugikortasun programari esker egindako ikasketa hauek direla eta, bi leku hauen gaineko ezagutza erabili nahi da orain arte egin ez den azterketa original bat osatu ahal izateko.

Lanean aurrera egin ahala atal desberdinak agertuz joango dira. Hasteko, lan hau testuinguruan jartzen saiatuko gara gure ikergaia inguratzen duen markoaren ezaugarri batzuk aipatuz. Ondoren, datuak biltzeko eta tratatzeko erabilitako metodologia azalduko dugu. Jarraitzeko, kurtsoen arteko konparazioarekin buru-belarri sartuko gara elementu desberdinak alderatuz, hala nola: bakoitzaren ikasgaiak eta hauen kreditu kopurua, egutegia eta lan egiteko era, taldekatzeak, Informazio eta Komunikazio Terknologiaren (IKT) erabilera eta ebaluatzeak moduak. Azkenik, konparaziotik ateratako ondorioak aurkeztuko dira.


2. Markoaren ezaugarri batzuk: ingelesaren papera *lingua franca* gisa eta Europako Unibertsitateen Erreforma (Bolognako prozesua)

Atal honetan gure lanaren markoa zedarrizten duten elementu garrantzitsu batzuk aipatuko ditugu. Horrela, alde batetik ingelesak nazioarte mailan duen garrantziaz eta *lingua franca* bezala erabilia izatea ahalbidetzen duten faktore batzuek arituko gara. Beste alde batetik, Europa mailan unibertsitateen jardunbidea homologatzeko hain garrantzitsua den Bologna prozesua izango dugu hizpide.

2.1 Ingelesaren papera *lingua franca* gisa

Ezinezkoa litzateke lan honen garrantzia behar den moduan ulertzea gaur egun bizi dugun globalizazio garaia kontuan hartu gabe. Ingelesaren gaur egungo garrantziak jabetzeko, George Weber-en (1997)¹ hitzak baliogarriak suerta daitezke, hizkuntzek duten eraginean garrantzitsuak diren sei faktore hauek zehaztu baitzituen:

1. Hizkuntza hori lehen hizkuntzatzat dutenen kopurua.
2. Hizkuntza hori bigarren hizkuntzatzat dutenen kopurua.
3. Hizkuntza hori erabiltzen duten biztanle eta herrialde kopurua.
4. Hizkuntza hori zenbat esparru nagusitan erabiltzen den internazionalki.
5. Hizkuntza hori erabiltzen duten herrialdeen botere ekonomiko, militar eta finantzarioa.
6. Hizkuntza horrek duen prestigio sozio-literarioa (ikus 1. irudia).



1. irudia. Hizkuntza batek eragina izateko kontuan hartu beharreko faktoreak (Weber, 1997)

1. irudian agertzen diren faktoreak gogoan izanda, gaur egun ingelesak duen statusa azaltzen saiatuko gara. Lehenik eta behin, esan daiteke mundu mailan gertatzen ari den globalizazioa dela eta, ingelesa gero eta

erabiliagoa dela eta nazioartean *lingua franca* erabilienera heldu dela. Honek zera esan nahi du Oxford Dictionary hiztegi prestigiotsuaren arabera: A language that is adopted as a common language between speakers whose native languages are different.²

Lehenengo hiru faktoreei dagokienez, aipagarria da 400 milioi hiztun inguruk - hauetako 230 milioik Amerikako Estatu Batuetan eta 56 milioik Erresuma Batuan- ingelesa dutela ama-hizkuntzatzat baina kopuru berdinak erabiltzen duela bigarren hizkuntza bezala ere. Horretaz gain, 500-700 milioi inguruk erabiltzen du atzerriko

¹<http://es.scribd.com/doc/48897416/Top-Languages-The-World-s-10-Most-Influential-Languages-by-George-Weber-1997>

²http://www.oxforddictionaries.com/es/definicion/ingles_americano/lingua-franca

hizkuntza bezala (Crystal, 1998). Dena den, ingeles hiztunen erkidegoan -1,5 bilioi ingurukoa- aldaketak gertatzen ari dira, bigarren edo atzerriko hizkuntza bezala erabiltzen duten gero eta hiztun gehiago baitaude (Crystal, 2000).

Gure ikerketa eremura itzuliz, Suediak ingelesaren irakaskuntzan Euskal Herriak baino tradizio handiagoa duela baieztatu dezakegu, ingelesa bertako bigarren hizkuntza izatera pasatu baita biztanleriaren %84³ hitz egiten duen heinean. Honen arrazoi nagusia, Enkvist-en ustez, hauxe da: «El sueco es hablado por 9 millones de personas y con eso ocupa el lugar número 90 entre las lenguas del mundo, ya que pocos extranjeros hablan sueco. Por esta razón, los suecos han aprendido a hablar inglés, lengua que se ha convertido en la segunda más hablada en Suecia» (Enkvist, 2011: 269). Suediar hezkuntza sisteman ere ingelesak bigarren hizkuntzaren papera hartzen du. Nahiz eta atzerriko hizkuntza izan eta ez izan ofiziala, ume guztiek ikasten dute Lehen Hezkuntzako etapan zehar. Suediar Curriculumean agertzen den bezala, ingelesaren ezagutzak testuinguru sozial eta kultural desberdinetan parte hartzeko, ikasketa internazionalak burutzeko eta lan mundurako norbanakoen aukerak handiagotzen ditu (Skolverket⁴, 2011: 32). Beraz, ikasleak hizkuntza ikasketa hauetatik etekina ateratzen dutelako ustea dago; laugarren faktoreari erreferentzia eginez (hizkuntza hori zenbat esparru nagusitan erabiltzen den internazionalki), hainbat esparrutan erabiltzen den hizkuntza delako⁵.

Euskal Autonomi Erkidegoan egoera nahikoa bestelakoa da ordea. Bi hizkuntza ofizial (euskara eta gaztelania) izateaz gain, unibertsitate aurreko ikasketak burutzen dituztenen artean %97k ingelesa ikasten du lehen atzerriko hizkuntza bezala (Lasagabaster, 2000).

Suedian ez bezala, EAeko ikasle estandar batek badaki gaztelania bezalako hizkuntza global bat eta euskal Curriculumak dioenez, «elebitasuna [gaztelania eta euskara] bermatzea da euskal eskolaren erronketako bat, baina, horrez gainera, pertsona eleanitzak hezi behar ditu, gutxienez atzerri-hizkuntza bat behar bezala dakitenak» (Eusko Jaurlaritz, 2010: 186).

³ http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_386_en.pdf

⁴ Skolverket suediar gobernuko Hezkuntza Saila da.

⁵ Esanguratsua izan daiteke beste datu hau ere: Suedian bigarren atzerriko hizkuntzarik aukeratuena, gaztelania da, Lehen Hezkuntzan ikasleen %5ek ikasten duelarik. Kopuru honek Bigarren Hezkuntzan gora egiten du nabarmen, %42ra helduz.

Hortaz, aipatzekoa da ingelesa ikastea ez dela derrigorra, ez baita atzerriko hizkuntza zein izan behar den zehazten. Hala ere, arestian aipatu bezala, ikastetxe gehienek ingelesaren alde egiten dute aukera, frantsesa (1970ko hamarkadara arte euskal hezkuntza sisteman atzerriko hizkuntzarik erabiliena) edota alemanera bezalako hizkuntzen aurretik (Lasagabaster, 2000).

Esan bezala, nahiz eta ofiziala ez izan, ingelesa oso hizkuntza erabilia da Europako Iparraldeko hainbat tokitan, esaterako Danimarka eta Herbehereak bezalako herrialdeetan, Europar Komisioak egindako *Special Barometer 386* dokumentuaren arabera⁶. Horretaz gain, dokumentu horretan fenomeno hau Europan nabarmena dela ikus dezakegu, Europar Batasuna osatzen duten 25 herrialdeetatik 19tan ingelesa baita atzerriko hizkuntzarik erabiliena. Europatik kanpo, berriz, Ameriketako Estatu Batuetako kasua deigarria izan daiteke hemengo ikuspuntu legeetik, zeren herrialde horretan ez baita hizkuntza ofizialik, nahiz eta ezaguna den ingelesa dela hizkuntzarik erabiliena, *U.S. Department of Commerce* delakoaren arabera⁷. *British Council* erakundearen arabera, berriz, beste hainbatetan, ingelesak hizkuntza ofizialaren statusa du, esaterako Indian, Kamerunen, Singapurren, Botswanan, eta abar⁸.

Bosgarren faktorearekin lotuta (hizkuntza hori erabiltzen duten herrialdeen botere ekonomiko, militar eta finantzarioa), leku hain desberdinetan ingelesa horrela hedatua gertatzea kasu gehienetan arrazoi nagusi batetik dator: iraganean Britainiar inperioaren menpeko kolonia izatearen (eta hauek aurrera eramandako politika inperialisten) ondorioz. Beste arrazoi nagusi batzuk Britainia Handian XVIII. mendean izandako industria iraultza eta AEBen boterearen gorakada XX. mendean dira. Laburbilduz, ingelesa mundu osora zabaldu duten herrialdeen botere ekonomiko, militar, eta finantzarioa puntakoa dela esan dezakegu. Horretaz gain, gaur egun AEBk duen botere kulturala ere nabarmena da, esaterako zinemagintzan, interneten, publizitatean eta informazioaren transmisioan ikus daitekeen bezala (Crystal, 1998: 10). Hau dela eta, ingelesa munduan zehar hedatzeaz gain, jarraipena izatea eta garatzea posible izan da, hizkuntza baten hiztunen botereak ekartzen baitu nagusiki hizkuntza bat global bihurtzea (Crystal, 2003: 9-10).

⁶ http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_386_en.pdf

⁷ <http://www.census.gov/prod/2013pubs/acs-22.pdf>

⁸ http://www.britishcouncil.org/map_of_countries_where_english_is_an_official_language.pdf

Azkenik, ingelesaren garrantzi sozio-literarioari dagokionez (Weber-en seigarren faktorea), esan daiteke aldaketa bat gertatu zela XVII. mendean William Shakespeareren eskutik, hortik aurrera ingelesaren prestigio literarioa ez baitzen berdina izango (Crystal, 2000). Aurrerago, XIX. mendeko Britainian, Lewis Carroll, Sir Arthur Conan Doyle edo Charles Dickens bezalako autoreen obrak agertu ziren arestian aipatutako prestigioari bultzada emanaz. Gaur egun arte ingelesez idatzitako literatura obren zerrenda amaigabea izateaz gain, historian zehar gehien irakurriak izan diren liburu batzuk aurki ditzakegu bertan. Hauen adibide gisa, azken urteetako produkzioari dagokionez aipa ditzakegu *Harry Potter* liburuen saga (J.K Rowling-ek idatzia) edota *The Da Vinci Code* (Dan Brownek 2003an idatzia).

Guztiaren buruan ondoriozta dezakegu ingelesak Weberrek (1997) zehaztu zituen faktore guztietan bere garrantzia erakusten duela eta, hortaz, ez da harritzekoa mundu mailan *lingua franca* izateko baldintza guztiak betetzea.

2.2 Europako Unibertsitateen Erreforma: Bolognako prozesua

Gure eremu hurbilean, globalizazioaren ondorioz Europar Batasunaren sorrerak aldaketa nabariak ekarri ditu; hezkuntza mailan eman den berrikuntza nabariena 1998. urtean Frantzia, Erresuma Batua, Alemania eta Italiako hezkuntza ministroek *Sorbonako Akordioa* sinatu zutenean martxan jarritako Europako Unibertsitateen Erreforma izan delarik (Campos & Juaristi, 2008: 11-12).

Akordio horretatik Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren (GHEE) sorrera nabarmendu dezakegu, espazio honetako partaideek “ezagutzaren Europa” indartu nahi zutelarik ondoko sei helburu hauen bidez (Campos & Juaristi, 2008: 12-13)

1. Erraz uler eta konpara daitekeen titulazio-sistemara eta kalifikazio-sistemara egokitzea. Horretarako, tituluaren gehigarri europarra sortu da.
2. Herrialde guztietarako baliozkoa izango den kreditu sistema sortzea. Horretarako, ECTS kredituak (European Credit Transfer System) sortu dira.
3. Hiru ziklotan antolatutako unibertsitate ikasketak bultzatzea: Gradua, Masterra eta Doktoregoa.
4. Goi-mailako hezkuntzaren arloan europar mailako lankidetzaren sustatzea.

5. Esparru komun horren barruan ikasleen eta irakasleen mugikortasuna bultzatzea.
6. Garapen kurrikularari garrantzia ematea, ikaslearen prestakuntza osatzeko.

1999. urtean sinatutako Bolognako Akordioa dela eta, erreforma Bolognako prozesua izenez ezagutua da. Urteak aurrera joan ahala, hainbat herrialde atxiki dira hitzarmen honetara, gaur egun 47 herrialdek osatzen dutelarik erkidegoa⁹.

2010. urterako, unibertsitateek eskaintako ikasketa guztiak plan berrira egokituta izan behar zituzten. Urte horretan, Bilboko Irakasle Eskolak eskaintzen zuen Lehen Hezkuntzako Graduko lehen taldeak osatu ziren. Hiru ikasturte geroago, UPV-EHUko Bilboko Irakasleen Eskolak eta *Stockholms Universitetek* beren arteko lehen ikasle trukea ahalbidetu zuten.

Zentzu honetan, GHEEaren existentziak posible egiten du konparatuko ditugun bi instituzioen artean hainbat elementu komun aurkitzea. Oinarrizko maila baten bada ere, bi unibertsitate hauek plano berean jartzen laguntzen digu. Dena dela, gure azterketa honetan bereziki Lehen Hezkuntzan ingelesa irakatsiko duten profesionalen formazioa aztertuko dugu. Norabide horretan, kontuan hartu behar da herrialde bakoitzean ingelesak bizi duen egoerak prestakuntza horretan eragina duela.

3. Datuak biltzeko prozedura

Bi erakundeen eta bi ikasketen arteko konparazioarekin hasteko, lehenik eta behin, orotariko informazioa bildu da bi sistemez eta instituzioez, eta informazio ugari lortu eta bildu ostean, hura aztertu eta garrantzitsuak diren elementu batzuk hautatu dira konparazioa esanguratsua izan dadin. Ezaguna da irakasleen prestakuntzan hainbat atal edo osagai aurki ditzakegula, hainbat alderditatik azter daitezkeela formazio sistemak; gainera, atal bakoitzean edo formazioaren elementu bakoitzean sakontasun desberdineko azterketak ere egin daitezke. Testuinguru horretan, oreka bat bilatzen saiatu gara konparazio-gaien ugaritasunaren eta haien sakontasunaren artean. Adibidez, hasieran elementu hauen artean bi kurtsoetan zehar lantzen diren curriculumeko edukiak berak aztertzea pentsatu genuen arren, ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu eta konparagai hori baztertu genuen. Azkenik, behin informazioa aztertu eta aurkeztu ondoren, erdietsitako emaitzak eta ondorioak plazaratuko dira.

⁹ <http://www.ond.vlaanderen.be/hogeronderwijs/bologna/>

Lana aurrera eramateko hiru informazio iturri nagusi erabili dira. Alde batetik, paperezko euskarrian den bibliografia, hau da, paperean argitaraturiko dokumentuak edo gaiaren inguruko agiriak. Beste alde batetik, internet erabili da agiri digital gehiago lortzeko asmoz baina baita beste hainbat eginkizunetarako ere: datu estatistikoak lortzeko, *Stockholms Universiteteko* eta Bilboko Irakasleen Eskolako web guneetako informazioa lortzeko edota unibertsitate bietako ikaskideekin eta langileekin harremanetan jartzeko (posta elektronikoaren zein sare sozialen bidez).

Hirugarren informazio iturria egile honen esperientzia propioa izango da, sei hilabetetan zehar Suediako hezkuntza sistemaren instituzio bat lehenengo pertsona behatzeko eta aztertzeko aukera izan baitu. Are gehiago, Erasmus egonaldian zehar ezagututako pertsona askorekin hezkuntzaren inguruan hitz egiteko abagunea izateak mundu mailan -baina Europar batez ere- dauden hezkuntza sistema desberdinen inguruko informazioa jasotzea ahalbidetu du¹⁰. Orri hauetan ez dira aipatzen komunikazio pertsonal zuzenen bidez egile honek ezagutu dituen herrialdeen kasuak (Finlandia, Herbehereak, Danimarka, Norvegia, Australia, Turkia, Italia, etab) baina esan beharra dago zeharo baliogarriak izan direla hezkuntzaren inguruko ezagutza eta ikuspuntu propioa aberasteko. Azken finean, esperientzia hauexek izango dira egileari lanari esentzia eta kutsua ematen lagun diezaioketenak.

4. Suediako *Stockholms Universitet* eta UPV-EHUko Bilboko Irakasle Eskolaren arteko konparazioa

Lan honen muinarekin hasteko, hots, konparazioarekin hasteko, abiapuntu egokia izan daiteke bai Suediako *Stockholms Universitetek* eta bai UPV-EHUko Bilboko Irakasleen Eskolak Lehen Hezkuntzako Gradua ikasi nahi dutenei eskaintzen dizkieten plangintzak ikuskatzea.

Hasteko, aipatu beharra dago suediar eta euskal Lehen Hezkuntza modu desberdinez antolatzen direla. Nahiz eta bi herrialdeetan Lehen Hezkuntzak sei eta hamabi urte bitarteko umeak barne hartu eta Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza etapan artean kokatu, Suedian Lehen Hezkuntza bi azpi-zatitan banatuta dago. Alde batetik, 1.go mailatik 3. mailara arte *Elementary School*

¹⁰ Ohartzeko gara horrelako informazio pertsonalagoak subjektiboegia izateko arriskua duela baina betiere hirugarren iturri hau beste iturri "formalago" eta "estandarago" batzuekin kontrastatzen eta osatzen saiatu gara.

(*lågstadiet*) dago, eta bestetik, 4. mailatik 6. mailara arte *Middle School (mellanstadiet)* deritzona¹¹. Unibertsitatean ere azpi-etapa hauetako bakoitzerako gradu edo titulazio bat dago¹². Horrela, alde batetik izango genuke *English for Primary School Teachers, years 1-3*, eta bestetik, *English for Primary School Teachers, years 4-6*. Bi titulazio hauetako edukiak aztertuta, ikasgaiak izenez berdinak direla ikusiko dugu, nahiz eta desberdintasunak izango diren segur aski zenbait edukitan, kontuan harturik ikasleen garapen maila desberdina izango dela bi etapa horietan.

Beste alde batetik, azpimarratu behar dugu aipatutako unibertsitate bi hauek publikoak direla eta badutela autonomia. Hori dela eta, Minorrak ez dira herrialde hauetako leku guztietan berdinak izan behar eta baliteke ikasgai desberdinez ere osatuta egotea.

Hemendik aurrera, baina, *English for Primary School Teachers, years 4-6* kurtsoan zentratuko dugu gure konparazio lana. Kurtso hori *Grundlärare 4-6* izeneko graduaren barruan kokatuko litzateke, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6. mailara arte irakasle izatea ahalbidetzen duen gradua hain zuzen ere¹³. Hau horrela izanik, *Grundlärare 4-6* kurtsoa bukatzen duten ikasle guztiek irakasle bezala lan egin ahal izango dute 4. mailatik 6. mailara arte Matematika, Natur Zientziak, Suediera eta Ingelesa ikasgaiak irakasten¹⁴.

EHU-UPVko Bilboko Irakasleen Eskolan, ordea, Lehen Hezkuntzako Gradua eskuratzen duten irakasle-gai orok etapa osoan zehar irakasle lanbidea betetzeko baimena jasoko du. Hala ere, ez du Lehen Hezkuntzan existitzen diren espezialitateetan¹⁵ klase emateko aukera izango bete beharreko baldintza osagarriak bete ezean. Era berean, laugarren mailan Atzerriko Hizkuntzako Minorra egiteak Lehen Hezkuntzako ingeleseko irakasle espezializatua izatea ahalbidetzen du¹⁶.

¹¹ <http://sweden.se/society/education-in-sweden/>

¹² Lehen Hezkuntzako lehen hiru mailetan ingeles irakaslea izateko egin beharreko kurtsoaren informazioa: <http://www.english.su.se/education/programmes/teacher-education/english-for-preschool-class-and-school-years-1-3-1.131555>

¹³ <http://www.mnd.su.se/utbildning/studieinformation/studieg%C3%A5ng-programstudent/grundl%C3%A4rare-4-6>


¹⁴ Informazioa Suediako *Stockholms Universiteteko Grundlärare 4-6* Graduko ikaslea den M.P-ri *Facebook* bidez egindako elkarrizketa batetik lortua da.

¹⁵ Espezialitateak: Atzerriko Hizkuntza (ingeleza, alemana, frantsesa), Gorputz Hezkuntza, Musika, Psikologia Terapeutikoa, Entzumena eta Hizkuntza.

¹⁶ http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/informacion/magisbilbo_nuevo_plan/eu_ikasketa/adjuntos/GIDA%20AZKARRA%20LH%20web.pdf

Ondoren erakusten ditugun 2. eta 3. irudietan bi gradu hauen plangintza osoak agertuko ditugu eta gogoan izan beharko dugu lau ikasturteko ikasketa hauek 240 ECTS dituztela, maila bakoitzean dauden ikasgaiak 60 ECTS osatzen dituztelarik.

4.1 Lehen Hezkuntzako Gradua egiteko plangintzen konparazioa



2. irudia. UPV-EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Lehen Hezkuntzako Graduaren plangintza.
<https://gestion-servicios.ehu.es/plantillas/LH%20KUADROA%20eus.pdf>

	A Periodoa	B Periodoa		C Periodoa	D Periodoa
1.LAUHILEKOA	Matematika I	Historiaren Hezkuntza eta bere egokitzapena gizartean	Practicum I	Suediarrezko Komunikazio Gaitasuna I	
2.LAUHILEKOA	Garapen eta ikaskuntza pertsonalaren teoriak	Legeak eta Etika Eskola Munduan	Matematika II	Practicum II	Erlazio Sozialak Eskolan
3.LAUHILEKOA	Hautazkoak: 1. Zientzia eta Teknologia; 2. Hezkuntza Zibikoa; 3. Dantza; 4. Ikus entzunezkoak; 5. Musika; 6. Kirola eta Osasuna				
4.LAUHILEKOA	<u>Ingelesa Lehen Hezkuntzako Irakasleentzako, 4-6 urteak</u>				
5.LAUHILEKOA	Suediarrezko Komunikazio Gaitasuna II			Practicum III	Zientzia eta Ikerkuntzaren Ezagutza
6.LAUHILEKOA	Lan Autonomoa I			Matematika III	Matematika IV
7.LAUHILEKOA	Hezkuntza Berezia	Eskolaren eta Irakaskuntzaren Ebaluazioa eta Garapena	Aparientzia eta Erretorika	Ebaluazio eta Teoria Kurrikularren Irakaskuntza	
8.LAUHILEKOA	Practicum IV			Lan Autonomoa II	

3. irudia. Suediako Stockholms Universitet instituzioko Lehen Hezkuntzako Graduko plangintza. <http://www.mnd.su.se/utbildning/studieinformation/studieg%C3%A5ng-programstudent/grundl%C3%A4rare-4-6>. Testu originala suedieraz agertzen da eta “Google Translator (<https://translate.google.com/>)” erabilia ingelesera eta gaztelaniara itzuli da. Ondoren, Asier Fernandez euskarara itzultzeaz arduratu da.

Bigarren eta hirugarren irudietan islatzen diren bi plangintza orokor hauek behatzerakoan bi desberdintasun nagusi ikus daitezke: batetik, UPV-EHUko plangintzan lau mailak zehazten diren bitartean *Stockholms Universitetek*oan lauhilekoak baino ez direla aipatzen; bestetik, Atzerriko Hizkuntzako Minorrak kokapen desberdina duela plangintza bakoitzean, UPV-EHUn 4. mailaren 1. lauhilekoan jarria da baina *Stockholms Universitet*en 4. lauhilekoan, hau da, 2. mailaren 2. lauhilekoan.

Suediar instituzioari dagokionez, nabaria den beste desberdintasun bat “periodo” edo “denbora-tarte” kontzeptuaren agerpena da. Lauhileko bakoitza lau denbora-tartetan banatzen da: A, B, C eta D “periodoetan”, hain zuzen ere. Periodo hauek lauhilekoa lau azpiataletan zatitzen dute, denbora tarte hauetako bakoitzean ikasgai bat lantzen delarik. UPV-EHUn, ostera, lauhileko osoan zehar egokitzen diren ikasgaiak aldi berean ematen dira. Salbuespenak ere badaude, noski, suediar plangintzan hainbat kasutan ikus daitekeen bezala “periodoak” ez baitira guztiz finkoak eta beste barik, denboraren antolaketa errazteko baliabide gisa ulertu daitezke.

Plangintza hauetako bakoitzean ingelesean espezializatua izan nahi duen Lehen Hezkuntzako irakasle-gaiak egin beharreko ibilbidea desberdina da, leku bakoitzeko eskakizunak ez baitira berdinak. Esate baterako, UPV-EHUko ikasleari, 3. mailan, 6 ECTS dituen *Atzerriko Hizkuntza eta bere didaktika* ikasgaia egiteaz aparte, 4. mailan aukeran dituen bost minorretatik Atzerriko Hizkuntzako (30ECTS) aukeratu beharko du halaberrez. Minor hau aukeratu ahal izateko, ikasleak aurretiaz ingelesean Europako Erreferentzia Markoko¹⁷ B2 tituluaren jabeak izan beharko dira.

*Stockholms Universitet*eko ikasleari, aldiz, 4. lauhilekoan derrigorrezkoa den *English for Primary School Teachers, years 4-6* (30ECTS) kurtsoa egitea baino ez zaio eskatuko. Izan ere, lau urteetan zehar izango dituen hautazkoek ez dute lotura zuzenik izango ingeleseko komunikazio gaitasunarekin. Kasu honetan ez zaie B2 titulu izatea eskatuko, unibertsitateko irizpideen arabera unibertsitate sartu aurreko frogan nazionaletan maila nahikoa dutela erakutsi izan dutelako.

4.2 Lehen Hezkuntzako Ingeleseko irakasleen espezializazioa: Atzerriko Hizkuntzako Minorra VS *English For Primary School Teachers, years 4-6*

¹⁷http://www.habe.euskadi.net/contenidos/informacion/euro_marko/eu_euro_mar/adjuntos/europako_markoa.pdf

Plangintza osoen konparazio globala egin eta gero, arestian aipatu ditugun bi kurtsoen analisi eta alderatze zehatzagoari ekingo diogu. Horretarako, esanguratsuak iruditu zaizkigun puntu hauek aztertuko ditugu: kurtsoetako ikasgaiak eta hauen kredituen kopurua, egutegia/ordutegia eta lan motak, taldekatze motak, IKTen erabilera eta ebaluazio motak.

4.2.1 Kurtsoetako ikasgaiak eta hauen kredituen kopurua

English for Primary School Teachers, years 4-6 (Stockholms Universitet)	Atzerriko Hizkuntzako Minorra (EHU-UPV Bilboko Irakasleen Eskola)
Language Proficiency and Theory (7,5 ECTS)	Development in English communicative competence (6 ECTS)
English Literature and Films for Young Readers (6 ECTS)	Development of English Linguistic competence (6 ECTS)
English in the Classroom, years 4-6 (7,5 ECTS)	Foreign Language Teaching: English (6 ECTS)
Language Didactics and Pedagogical Evaluations (7,5 ECTS)	English for the Infant and Primary classroom (6 ECTS)
Pronunciation (1,5 ECTS)	Langue Étrangère: Français (6 ECTS)

1. taula. Stockholms Universitet-eko English for Primary School Teachers, years 4-6 eta UPV-EHUko Atzerriko Hizkuntzako Minorreko ikasgaiak eta bakoitzaren kreditu kopurua. Iturriak: http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/informacion/magisbilbo_horario/eu_horario/horario.html eta <http://www.english.su.se/education/programmes/teacher-education/english-for-primary-school-teachers-years-4-6-1.131574>

Goiko taulan ikus daitekeen bezala, bi kurtsoak bosna ikasgaiez osatuta daude. Era berean, argitu beharra dago suediar unibertsitatearen kasuan kurtsoa bi departamenturen artean ematen dela, *Language Education Department* alde batetik eta bestetik *English Department* alegia. Ingeleseko Departamentua *English Literature and Films for Young Readers* eta *Language Proficiency and Theory* ikasgaiez arduratzen den bitartean, Hizkuntzen Hezkuntzarako Departamentuak beste hiru ikasgaiak bere gain hartzen ditu. UPV-EHUren kasuan, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila arduratzen da kurtso honetaz guztiaz.

Erraz nabari daiteke ikasgaien kreditu kopurua ezartzeko irizpideak ere desberdinak izan direla. UPV-EHUen ikasgai guztiei garrantzi bera ematea erabaki da ikasgai bakoitzari 6 ECTS emanez. *Stockholms Universiteten*, berriz, hiru ikasgairi 7,5

ECTS eman bazaizkie ere, *English Literature and Film for Young Readers* ikasgaiari 6 ECTS egokitu zaizkio eta *Pronunciation* izenekoari soilik 1,5 ECTS.

Bi irizpide desberdin hauen zergatiari erantzuteko, garrantzitsua izango da ECTS sistemak ekarritako berrikuntzak azaltzea. Era berean, kurtsoen plangintzei edo egutegiei (1. eranskina) begiratu beharko diegu. Hasteko, erreforma aurreko kredituetan eskola orduetan egindako lana soilik kontuan hartzen zela argitu behar da, kreditu bakoitza 10 ikastorduren baliokidea zelarik. Orain, ECTS sistemaren bidez, eskola orduz gain ikasleek egin beharreko beste zeregin batzuk ere kontuan hartzen dira (Campos & Juaristi, 2008).

Hori dela eta, ECTS kredituak ikasketa plan batean programatutako helburuak gainditzeko ikasleek egin behar duten lan karga neurtzen du: eskola orduak, bakarkako ikasketa orduak, azterketak, praktikak, mintegiak... Erreferentzia modura, ECTS kreditu bakoitzak laneko 25 eta 30 orduren artean islatzen du. Irakasgai bakoitzak duen ECTS kreditu bakoitzeko, 7,5 eta 10 ordu bitartean eskola orduak izango dira. Klase magistral edo teorikoak, gehienez ere, ikastordu kopuruaren %60 izango dira. Gainontzekoa, beraz, lantzen den irakasgaiaren ezaugarrietara hobekien egokitzen diren praktika, tailer edota mintegiei dagokie (Campos & Juaristi, 2008: 13).

Aipatzekoa da baita ere, ikasgaien edukia pixka bat aztertuz bi minorretan, badirela bi motatako ikasgaiak: batetik, ikaslearen hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna hobetzekoak (prestakuntza linguistikoa, hizkuntza-prestakuntza), eta beste bat ikasleen irakasteko gaitasuna hobetzeko (prestakuntza didaktikoa dei daitekeena). Ikasgaiak konparatuz ikusten dugu Bilboko Irakasle Eskolako planetan 12 kreditu eskaintzen zaizkiola hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna hobetzeari (*Development of English linguistic competence* -6 ECTS- eta *Development in English communicative competence* -6 ECTS-), eta beste 12 prestakuntza didaktikoari (*Foreign Language Teaching* -6 ECTS- eta *English for the infant and primary classroom* -6 ECTS). Horri gehitu behar zaio 3. mailako Atzerriko Hizkuntza eta bere Didaktika izeneko ikasgaia. Beste alde batetik, aipatzekoa iruditzen zaigu Bilboko curriculumean minor horretan 6 ECTS atzerriko bigarren hizkuntza bat lantzeari eskaintzen zaizkiola: frantseseko komunikazio gaitasuna handitzeari.

Stockholm Universiteten, berriz, hizkuntza-komunikaziorako kompetentziari 9 ECTS eskaintzen zaizkio: *Language proficiency and theory* -7,5 ECTS- eta *Pronunciation* -1,5 ECTS-. Ikaslearen prestakuntza didaktikoari, berriz, ikasgai hauek

eskaintzen zaizkio: *English literature and films for young readers* (6 ECTS), *English in the Classroom* (7,5 ECTS) eta *Language didactics and assessment* (7,5 ECTS).

Behin ECTS sistemaren nondik norakoak azaldu eta gero, adibide moduan, *Stockholms Universitetek Pronunciation* izeneko ikasgaiari besteei baino askoz kreditu gutxiago ezartzearen arrazoiria jo dezakegu. *English for Primary School Teachers, years 4-6* kurtsoaren egutegiari (1. eranskina) erreparatzen badiogu, *Pronunciation* ikasgaiak eskola ordurik ez duela konturatuko gara. Honen zergatia da ikasgai honek benetan eskola ordu presentzialik ez duela. Ordu presentzialetatik kanpo geratzen den ikastordu bat baino ez da erabiliko ordu erdiko bi frogak egiteko, beste denbora guztia bakarka lan egiteko erabiltzen baita. Beraz, ikasgai honetarako bakarka lan eginez 40 ordu inguru (besteetan baino askoz gutxiago) nahikoa dela estimatu dutenez, 1.5 ECTS (40 ordu ingururen baliokidea) ezartzea erabaki dute lan autonomoari ordu presentzialei baino nabarmenki pisu handiagoa emanez

Era berean, ikasleei bakarkako lana errazteko, ahoskera lantzeko materialez hornituak izango dira eta unibertsitatean bertan dagoen *Språkstudion* Hizkuntza Estudioan eskaintzen diren ekintzetan parte hartzeko aukera ematen zaie. Ez dago soberan esatea *English in the classroom, years 4-6* ikasgaiaren zehar *Språkstudion* Hizkuntza Estudioa bisitatu izan zela dinamika bat egiteko asmoz. Bertan, ingelesezko abestien bidez ahoskera landuz, ikasleen artean koro bat osatu zen estudioa barnetik ezagutzeko aukera emanez.

Deigarria da *Pronunciation* izeneko ikasgai honetan egindakoa UPV-EHUko Atzerriko Hizkuntzako Minorrean ere egin dela. Hala ere, *Development of English Linguistic Competence* ikasgaiaren barruan dinamika bat izan da eta, beraz, ezinezkoa zaigu dinamika horren kreditu kopuru baliokidea zein den ezagutzea.

Suediar unibertsitateko beste ikasgaietan ere antzeko zerbait gertatzen dela ikus dezakegu egutegia aztertuz gero (1. eranskina). Ondoren agertuko den taulan (2. taulan), *English for Primary School Teachers, years 4-6* kurtsoko ikasgaietan zenbat ordu presentzial dauden, kreditu kopurua, kredituen ordu baliokideak (1 ECTS = 25 ordu direla jota) eta ordu guztietatik ematen diren ordu presentzialen portzentajeak ikusi ahal izango ditugu:

Ikasgaiak	Ordu	Ordu	Kredituak	Kredituen
------------------	-------------	-------------	------------------	------------------

	presentzialak (h)	presentzialak (%)	(ECTS)	ordu- kopuruak
Language Proficiency and Theory	16	8,5	7,5	187,5
English Literature and Film for Young Readers	23 ¹⁸	15,3	6	150
English in the Classroom, years 4-6	23	12	7,5	187,5
Language Didactics and Pedagogical Evaluations	16	8,5	7,5	187,5
Pronunciation	0	0	1.5	37,5

2. taula. Stockholms Universitet instituzioko English for Primary School Teachers, years 4-6 kurtsoa ikasgaietan ematen den orduen banaketa.

Arestian ikasgai baten ordu kopuru osotik klase magistral edo praktikentzako erabiltzen diren kopurua gehienez ere %60a osatu dezaketela irakurri badugu ere, kurtso honetako ikasgaiak muga horretatik urrun kokatzen dira, gelan erabiltzen diren ordu presentzialak ez baitira inondik inora %16ra heltzen kasu batean ere.

Ikus dezagun orain UPV-EHUko ikasgaiekin egindako taula berdintsua (3. taula):

Ikasgaiak	Ordu presentzialak (h)	Ordu presentzialak (%)	Kredituak (ECTS)	Kredituen ordu baliokideak
Foreign Language Teaching: English	60	40	6	150
Langue Étrangère: Français	60	40	6	150
English for the Infant and Primary classroom	60	40	6	150
Development of English Linguistic competence	60	40	6	150
Development in English	60	40	6	150

¹⁸ 23 ordu hauetatik 7 ordu presentzial talde lana egiteko erabiltzen dira (ikus 1. eranskina)

communicative competence				
-----------------------------	--	--	--	--

3. taula. UPV-EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Atzerriko Hizkuntzako Minorreko ikasgaietan ematen den orduen banaketa.

UPV-EHUko ikasgaietan, *Stockholms Universiteten* bezala, klase magistral eta praktikoetan erabiltzen den ordu kopurua ez da ordu kopuru osoaren %60ra heltzen. Izan ere, aztertzen ari garen UPV-EHUko Lehen Hezkuntzako Gradu ikasgaietan, gehienez %40a erabiltzen da kasu guztietan, gainontzeko orduak ikasleek aparteko lanak egiteko erabil ditzaketelarik. Hala ere, agerikoa da bi unibertsitateok ECTS kredituen erabilera modu banatan ulertzen dutela. Ordu presentzialen portzentajeei erreparatzen badiegu, UPV-EHUko Bilboko Irakasleen Eskolak haiei garrantzi handiagoa ematen diela ikus dezakegu, *Stockholms Universiteten* erabiltzen den ordu presentzialen kopurua bikoiztera baino gehiago ere heltzen delarik.

Egutegiaren eta kredituen gaineko ikuspuntu desberdintasun honek, ondoren azaltzen saiatuko garen bezala, kurtso bakoitzean metodologia desberdina erabiltzea ekarriko du, bakoitzean lanak egiteko eretan eta ikasleen eguneroko ikaste-ohituretan eragina izanik.

4.2.2 Egutegia/ordutegia eta lanak egiteko erak

Aztergai ditugun kurtso bien arteko konparazioan, desberdintasun nagusienetako bat egutegian topa dezakegu duda barik, batez ere ordu presentzialen kopuruari dagokionez. Kurtso bakoitzaren ordu presentzialak zenbatuz gero, *English for Primary School Teachers, years 4-6* kurtsoak guztira 76 ordu presentzial¹⁹ dituen bitartean, Atzerriko Hizkuntzako minorrak 300 ordu dituela konturatuko gara. Honen ondorioz, leku bakoitzeko ikasleek asteko ordutegi guztiz bestelakoak izango dituzte. Esate baterako, Atzerriko Hizkuntzako Minorra egiteko, ikasleek astero (jai egunetan izan ezik, noski) astelehenetik ostiralera unibertsitatara joan beharko dira, egunero 8:30etatik 10:00ak arte izango baitituzte saio magistralak eta 10:30etatik 12:30ak arte saio praktikoak (2013-2014. ikasturtean). Saio hauei gehitu beharko genizkieke soilik aste batzuetan zehar ikasgai bakoitzak dituen arratsaldeko bi mintegiak.

English for Primary School Teachers, years 4-6 kurtsoan, aldiz, ordutegia astero aldatzen da. Gainera, saio bakoitza²⁰ bi ordukoa izaten da eta ohikoa izan daiteke astean

¹⁹ Azterketak egiteko ezartzen den denbora ez da ordu presentzialen barruan sartzen.

²⁰ Saio gehienak teoriko-praktikoak (*seminar*) dira, tartean dagoela tailer edo mintegi bat (*workshop*) ere.

bi saio baino ez edukitzea. Horregatik, kurtsoa hasi aurretik eskuragai dagoen egutegia (1. eranskina) ezinbesteko baliabidea bilakatzen da klase bakoitza non eta noiz emango den jakin ahal izateko.

Kurtsoaren egutegi osoa (1. eranskina) eta ikasgai bakoitzaren plangintza gidak (2. eta 3. eranskinak) kurtsoaren hasieratik izatearen beste abantaila bat da ikasleek egingo dituzten ariketa guztien informazioa dutela. Horrela, euren denbora antolatzeke moduak aurreikus ditzakete eta lehenengo egunetik hasi daitezke bakarka egin beharreko lan gehienak egiten nahi izanez gero.

Taldeka egin beharreko lanetan, ordea, bai *English for Primary School Teachers, years 4-6* bai Atzerriko Hizkuntzako Minorrean gauza bera gertatzen da. Lanak egiteko prozedura eta edukiak antzekoak izateaz gain, kurtso bietan aurki ditzakegun lan moten artean badaude ikaskideen aurrean egin beharreko aurkezpenak edota unitate didaktiko zein proiektuen plangintzen prestaketak. Ohikoa da baita ere talde batek beste talde bati *feedbacka* ematea egin dutenaren alde onak eta txarrak azalduz. Azkenik, bai kurtso baten zein bestean bakarka eta taldeka egin beharreko lanen proportzioa antzekoa dela esan daiteke, hau da, bakarkako lanen eta talde lanen kopurua berdintsua dela²¹.

4.2.3 Taldekatzeak

Ordu presentzialen kopuruaz aparte, kurtso bien arteko konparazioan dagoen desberdintasunik nabarmenatarikoa ikastalde bakoitzean dagoen ikasle kopuruan aurkituko dugu.

Atzerriko Hizkuntzako Minorrean 60 ikaslez osatutako talde bakarra dagoen bitartean, *English for Primary School Teachers, years, 4-6* kurtsoak 20-25 ikaslez osatutako bi talde hartzen ditu barne. UPV-EHUK eskaintzen duen minorrean taldearen ikasle kopurua saioen arabera aldatzen da, hau da, saio magistraletan 60 pertsonako talde bakarra egoten da baina saio praktikoetan eta mintegietan 30 pertsonako bi taldetan banatzen dira.

UPV-EHUko talde hauetako partaideak Atzerriko Hizkuntzako Minorrean matrikulatutako ikasleak izango dira soilik. *English for Primary School Teachers, years*

²¹ “Atzerriko Hizkuntzako” minorreko informazioa eskuratzeko kurtso horretako ikaslea izan den A.G. elkarrizketatu dugu. Ohartzekoa da, hala ere, ikasleek egin beharreko lanak ez daudela behin betiko finkatuak eta urtero alda daitezkeela. Guk hemen 2013/2014 ikasturtekoak konparatu ditugu.

4-6 kurtsoko ikasgaietan, ostera, taldeak txikiagoak diren arren taldeen antolaketa malguagoa izan daiteke beste kurtsoko batzuetako ikasleak ere ikasgai solte batzuk aukeratu ditzaketelako euren titulazioetarako ikasketa osagarri bezala. Horren adibide gisa, *Literature and Films for Young Readers* ikasgaietan topa genitzakeen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko ikasten ari zen L.L. ikasle belgikarra edota Giza Hezkuntzako Gradua egiten ari zen A.H. ikasle suediar-espainiarra. *English for Primary School Teachers, years 4-6* kurtsoko beste ikasgaietan parte hartzen ez bazuten ere, ikasgai horretan kurtsoko ikasgai guztietan zeuden 20 kide ingururekin elkartzen ziren, lan-talde berriak osatuz²².

Horretaz aparte, *Stockholms Universiteten* aurretiaz aipatu dugun ordu presentzialen kopuru murriztua kontuan hartzen badugu, asistentzia beharrezkoa zen saioetara ikasleak oso prestatuta joaten zirela esan daiteke. Hots, bai irakasleen aurreplangintzari bai taldeen ikasle kopuruari eta hauen jarrerari esker, bi orduko saio intentsiboak aurrera eramaten ziren nahiz eta astero ikasgai horren inguruko beste saiorik ez izan.

